

ROMO 1

1854an, Madozen desamortizazioarekin, herri lurrak enkantean saldu ziren (salbu eta erabilera publikoko herri lurrak "Montes de utilidad pública"). Estatuak **Areeta** osoa, **Galea** eta **Aiboa-Atxekolandeta** desjabetu eta bere izenean jarri zituen eta ondoren enkantean jarri eta saldu zituen.

Galea Martinez Rivasek erosi zuen osorik

Areeta Maximo Agirrek erosi, lursailetan banatu eta lurzatiak saldu zituen eta zati bat, Matias Romok erosi zuen baina ez etxeak edo txaletak egiteko Neguri edo Areetako gainerako erosleek egiten zuten bezala baizik eta bere lantegia (Santa Eugenia eta Kresaltsu kaleak bat egiten duten tokian) etxebizitzak eta futbol zelaia (gaur egun Ibaiondo kalea, Etxe merkeak dauden tokia).

Areeta edo Neguri proiektu mobiliarioak izan ziren baina Romo, industria txikairen inguruan sortu zen: olio fabrika, hazi fabrika, buruko orratzak, mahai tresnak, objektu erlijiosoen fabrika...eta areetara heltzen zen trenbideko langileentzako bizitoki moduan.

Romo, pertsona abizena da jatorriz; Donostian Gros edo Bilbon Montefuerte bezala eta auzoaren izena lurren jabearen abizenetik badator ere, futbol zelaia finkatu zen. Futbol zelaia 1912an egin zen eta bertan jokatzeko Arenas Clubak. Jendea Campo de **Romo** deitzen hasi zen eta hau gailendu zitzaion **Kresaltsuri** edo eta **Itzubaltzetari**. Inguruak hartzen zituen beste izenak. Futbol zelaia 1914an desagertu zen. 2 urte nahiko izan zituen auzoari izena emateko.

Kresaltsu toponimoak, itsasoko ura esan nahi du eta ematen du Gobela erreka inguru guztia zela Kresaltsu, itxasoko ura sartzen zenean gatzetik betetzen zuelako inguru guztia; beste hipotesi baten arabera toki urtsu bat edo laku txiki gazi bat egon zitekeen eta hortik Kresaltsu. Eta Kresaltsu, nahiko ingurune zabala da; errekan nahiko goraino (XVI. mendean, Ibarrekoerrotan, itxasotik kilometrotara dagoen lur saileraino heltzen zen) deitu izan zitzaion Kresaltsu; are gehiago, 1717ko mapa batean erreka berari Gobela-Kresaltsu deitzen zaio. Posible da erreka horrela ere deitu izana eta bere ibilgu guztia horrela ezagutu izana.

1979an Euskaltzaindiak, auzoari, **Itzubaltzeta** deitzea proposatzen zuen; badirudi izen hori Portugaleteko dokumentazioan agertu zela eta IHI+BALTZ+ETA baturatik etorri ahal da, ihi mota hori izango omen zelako hemengo ohiko landarea baina zalantzak sortzen ditu; horrela balitz eta bizkaieraz, "Itza" izango litzateke "Itzu" beharrean (Itzabaltzeta).

Areeta izena ere lehenengo aldiz Portugaleteko dokumentazioan agertu zen. XV. mendean Ibaizabal erreka bokalean barkua hondoratu zen eta pleitua egon zen barkuaren hondakinak hartzea nori zegokion erabakitzeko eta "los arenales de Areta" esaten da. Eta sasoi berdinean, Portugaleteko "fuentes documentales"en aipatzen da Algorta toki izen bezala.

ROMO 2

Denborarekin, toponimo sortzen joaten dira eta hemen horren adibidea **Erreka+gane/gana**. **Neotoponimoa** da ahozko kutsuarekin. XX. mende hasieran eta batez ere gerra zibilaren inguruan hasi ziren pentsatzen ahozkotik hurbilen dauden formak egokiagoak zirela eta horregatik **Errekagane**, **Negurigane**, **Gobelaurre** eta abar.

Gobela erreka Getxoko ekonomiaren eta bizitza sozialaren ardatzetako bat izan da errotak mugitzeko indarra ematen baitzuen.

Gobelak erreka indar handikoa ez denez normalean, urteko sasoi askotan arazoak zituen itsasoratzeko eta ondorioz, haremunak eta padurak sortzen zituen bokalean eta itsasora zuzenean heltzen zen ur emari nagusia **Avanzada** inguruko itsasoratzen zen (La Bola hondartza inguruan).

XVI. mendean, itsasontziak erriean gora egiteko sarrera oztopatzen zuela eta, Bizkaiko Foru Aldundiako, udalarekin negoziatu ondoren Bypass bat egin zuen eta bere gainetik, Algorta eta orduko Areetako lurrak komunikatzen zituen zubia zegoen.

By pass hau ez zen oso ondo egongo XIX. mendean lur hauek erosi zirenean eta **Areeta** finkatzeko lanengatik, Gobela ibaia itsasoratzeko beste modu bat pentsatu eta egikaritu zuten baina emaitza oso txarrekin; izan ere proposatutako soluzioaren arabera, **Gobela** erreka **Ibaizabalen** paraleloan zihoan baina errekan gora; horrek arazo handiak sortzen zituen uholde garaian gobelak bere mendekua hartzen zuelako herria ur azpian utziz. Zorionez, metroa egin zutenean 1999an, XVI. mendeko soluziora hurbiltzen zen irtenbidea eman zitzaion, gaur egun ikusi ahal duguna.

Geroago hormen artean sartu zuten, estali eta azkenik, berriro antzinako bidera itzuli zuten (XVI. mendera bueltatzea izan zen soluzioa) eta gaur egun **Areeta** azpitik zerbait itsasoratzen den arren, **Lamiakorantza** desbideratuta dago, **Udondo** errekararekin bat egin eta Leioan ibairatzen da.

Nahiz eta dokumentazioak eta euskal ahoskera bat etorri **Gobela** izendatzean erdaraz ohikoa da **-s** arrotza ezartzea inguruko eta Euskal Herriko beste lekuetako izen askotan bezala (**Illetas, Aldapas...**).

ROMO 3

Aipagarriak hemengo Ginkgo biloba zuhaitzak. Ginkgo biloba; Txinako zuhaitza da eta gaur egun ez du etsairik bidean hil direlako guztiak. orain 200 miloi urte Europako arbola zen eta desagertuta zegoen botaniko ingeles batzuk Txinako enperadorearen lorategian ale batzuk topatu zituzten arte. Isolatuta bizi izan denez, gaur egun desagertuta daude bera erasotzen zituzten gaitzak, zomorroak, bakterioak eta birusak.

Dinosauroen garaiko landare hau gaur egungo zuhaitz guztien birraitona da eta horrez gain, ezin da erre. Sutea badago, ez da erretzen eta estruktura aldetik oso sinplea eta arkaikoa da. Toki kutsatuetan oso ondo moldatzen da.

Erraz bereizten dira arrak eta emeak; adibidez hauek arrak dira, bakarrik arrak landatzen dira ze emeen fruituek oso usain txarra botatzen dute eta ez dira landatzen.

ROMO 4

Golf zelaia; Negurikoek egindako golf zelai pribatua 1911n. Ez da dokumentatzen aparteko izenik; Neguri eta Areetako dirudunentzako zelaia; 1962ra arte egon zan; Gaur egun Galeakoa dago. Areetak beste jolas gune bat izan zuen, Lamiako aldean poloan jokatzeko gune bat zeukan; Ingalaterran modan zeuden kirolak hona ailegatzen ziren: poloa, golfa, futbola...

Golfeko lehen emakume profesionala Espainiako golf federazioaren arabera golf zelai horretatik atera zen eta Elvira Larrazabal deitzen zen.

ROMO 5

Esan bezala Madozen desamortizazioaren ondoren toki hau Maximo Agirrek eta bere anaia Ezekielek erosi zuten eta lurra egonkortzeko, pinua landatu zuten; ez zen lehenengo aldia haremuna egonkortzeko pinua landatzen zela; Napoleonek ere Landetako haremuna eta padurak egonkortzeko pinua landatu zuen oso emaitza onekin. Eta horregatik dira hain ugariak inguru honetan pinuari erreferentzia egiten dioten toponimoak: **Artatza-Pinueta** da ikastetxea, **Pinueta** kalea, **El Pinar**, **Pinasolo**, **Pinuaga** toponimoa...

Getxo ez izan arren, **Artatza** jauregia Victor Chavarriren ondorengoek eraiki zuten. Artatza toponimoak "Artea dagoen lekua" esan nahi du. Baliteke arteak (quercus ilex, encina) ez izatea baizik eta artelatza (quercus suber, alcornoque) baina hori polenen bitartez ziurtatu beharko genuke.

Goiko aldeari **Gaztelueta** deitzen zaio. Ez du esan nahi Gaztelu bat egon zenik hor baizik eta puntu militar bat. Puntu hau, 1643an jarri zuten lehen aldiz eta gero karlistaldietan berrerabili zuten; 4-5 soldaduko bateria txiki bat zen eta batez ere itxasotik etorri ahal ziren eraso militarrek garaiz antzemateko eta Bilbo abisatzeko funtzioa zuen; izan ere, edozein armada edo soldadu-talde **Areetan** edo **Algortan** lurreratuta ere oraindik pare bat egun behar zituen Bilbora iristeko. Horregatik pentsatu behar da **Gaztelueta** eta antzekoen funtzioa gehiago izango zela kostaldea ondo zaintzea defentsa militar indartsua egitea baino.

ROMO 6

Gobelaurre; Gaur egun **Gobela** erreka urrun dago eta ematen du kalearen izena apur bat bortxatuta dagoela baina kaleari izena jarri ziotenean, Gobela erreka hemendik zetorren eta **Algorta** eta **Leioa** banatzen zituen. Leioan sartzen zen **Lamiakotik** Ibaizabalera emateko

Inguru hau, Leioako muga, haremuna zen eta landareri bakarra otea (pinudirik ez XIX. mende amaieretara arte). Hemengo otearen ustiapena enkantean ateratzen zen ganaduentzat edo ogia egiteko su bizia izateko.

ROMO 7

Romoko **Gobelaurre** kalea **Amaia** bihurtzen da **Leioako** aldean. Ez dakigu oso ondo zergatik eman zitzaion izen hori kaleari; baliteke herria amaitzen delako edo bestela Navarro Villosladaren liburutik ateratako aldarrikapen abertzale bezala; horrela balitz, mitologian oinarritutako kale-izen bat izango litzateke.

Amaia Navarro Villoslada idazlearen eleberrian agertzen da lehen aldiz "Amaia o los vascos del siglo VIII". Amaia, azken jentilen erlijioaren azken burua da eta bere ondorengoa, Asier, lehen euskaldun kristaua (amaiera eta hasiera). Amaiaren ama, Amagoia zen eta hor agertu ziren baita ere lehen aldiz beste euskal izen batzuk: Lorea, Usoa eta abar.

Amaia, gerra aurrean arrakastatsua izan zen; oso kristaua zen gizarte batean arrakasta izan zuen izenak; gerra ondoren euskal izenak debekatu eta itzuli behar izan zirenean, Amaia ezin zen itzuli eta gehienetan Maria jartzen zioten eta noizbait Maria Fin, izen kristaua behar zelako, eta paganoak ez zirelako onartzen. 60 hamarkadatik, izen literarioa zenez, Maria Amaia onartzen hasi ziren.

Aitor ere eleberri horretan agertzen da baina Agusti Xahoren beste idatzi batean argitaratua zegoen arinago. Aitor izena, Xahok asmatu zuen eta "aita onen seme" esan nahi du.

Pertsona izenak: askotan herriarekin inolako harremanik ez duten edo izan ez duten pertsonen izenak jartzen dira atzean mugimendu eta interes politikoak daudelako. Nazio batuen erakundeak 1979an eskatu zuen bizi den inoren izena jartzea debekatzea bai kaleak, bai kiroldegiak eta baita besteei. Hori ez da betetzen beti eta inoiz kendu behar izana egon da (Juan Carlos I kale eta etorbideen kasua).

Antzekoa da Marques del Real Socorro kalearekin pasatutakoa edo Maria Ibarra izeneko emakumearekin. 2005ean, herriko kaletegian emakume izen gutxi zegoela eta Udalak erabaki zuen kale eta espazio publikoei izena jartzerako orduan lehentasuna ematea emakume-izenei. Gauzak horrela, Maria Ibarra izeneko XVII. mendeko emakume baten izena jarri zion Fadura aldeko plaza bati eta horretarako arrazoia, senarra tratu txarreatik salatzera ausartu zen lehen emakume getxoztarra izan zela. Baina historiografia ez dago geldirik eta Javier Camporen esanetan, Marinaren salaketa baino lehen, Pascuala Arrezubiagak salatua zuen bere suhia.

ROMO 8

Pinuekin lotuta, bazegoen sestra politikarako aukera ere. Victor Chavarri dinastiko espainiazaleak "**el Pinar**" urbanizazioa egin zuen (el Pinar kalean) eta 1907an politikoki bere etsaia zen Ramon de la Sota abertzaleak "**Lertegi**" (Lertegi kalean) etxea Chavarriren urbanizazioaren aurrean.

Sotaren Lertegi izen hau Azkuek sortu zuen enkarguz eta iparraldean erabiltzen da pinu mota bat izendatzeko; ez dauka beraz, tokiko erreferentziarik baizik eta Azkuek beste euskalki batzuetara jotzeko ohiturari erantzuten dio; antza denez **Pinueta** eta antzekoak espainoetik hurbilegi zeudela nabaritzen zuelako.

XX. mendearen hasieran abertzaletasun garbizaleak, latina ekiditeko, **Ondarreta** terminoa asmatu zuten eta EAJk batzokiaren bitartez zabaldu zuen terminoa izan zen. Gerra aurretik Areetako batzokian eskola zegoen, antzerkia egiten zen, medikua doakoa, janaria ere ematen zen krisi garaian; gaur egun udal batek burutzen dituen funtzio asko eta asko orduan alderdi politikoek betetzen zituzten. Horren ondoren gizartearen zati handi batek planteamendu iraultzaile asko (adibidez garbizalekeria); ez zituen txarto ikusten.

Maximo Agirrek Areeta erosi zuenean, zati handi bat Leioa zen eta udal banaketaren ondoren, Leioako zatiari Lamiako deitu zitzaion eta Getxokoa geratu zen Areeta izenarekin.

ROMO 9

Hemengo etxe hauei "**Casas baratas**" deitzen zaie eta XX. mende hasierako pentsamenduaren ondorio dira; Ingalaterrako esperientzietan eta higienismoa" deitutako ideietan oinarrituta, 1911 legea atera zuten. Lege honen arabera 3 eta 4 geletako eraikinak eraikitzea ahalbidetzen zen. Garai horretan, Areeta-Bilbo trenean lan egiten zuten langileak eta inguruko fabriketako langile metalurgikoek sindikatu sortu zuten eta sindikatu horrek sustatu zuen etxebizitza hauek egitea 1924an "El hogar obrero de Gecho" izenarekin.

Lehen esan bezala Areeta Maximo Agirrek erosi, lursailetan banatu eta lurzatiak saldu zituen eta zati bat, Matias **Romok** erosi zuen lantegia (**Santa Eugenia** eta **Kresaltsu** kaleak bat egiten duten tokian), etxebizitzak eta futbol zelaia (gaur egun **Ibaiondo** kalea) egiteko eta denboraz, "Romo"ren futbol zelaiak jatorrizko "**Kresaltsu**" jan egin zuen.

Areetako geltokia:

Bilbao-Las Arenas trenbidearen amaierako geltokia izan zen orain lurpean dagoen hau. Trenaren lehenengo bidaia 1887an izan zen eta 30 minutu behar izaten zituen Areetara heltzeko. Jatorrizko trenbide horren gainean, gaur plaza dago.